



UEU

Urteko Txostena

2016



- 4 SARRERA**
ZER GARA?
 Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)
ZER EGITEN DUGU?
 Euskal Unibertsitatea sortzeko ildoak
 Argitalpengintza: liburuak eta aldizkariak
 Jarduera akademikoa
 Informazio eta Komunikazio Teknologiak
NOLAKOAK GARA?
 Kalitatea
- 5** Gizartearekiko erantzunkizuna
 Euskararekiko konpromisoa
 Puntapuntako gaiak
 Izaera partehartzailea
 Hurbiltasuna
 Autonomia
 Dinamikotasuna
 Konpromisoa
 EU
- 7** Sailburuen Biltzarra
 Upategira bisita
 Aritu Duzu? irratsaioa
 Ekosfera saioan kolaboratzen
 Bernat Etxepare lizeoa eta UEU elkarlanean
 Donostiako protokoloa
 POLITIKALDIA Nazio Estrategian
- 8 JARDUERA AKADEMIKOA**
 Lurraldea eta hizkuntza III. jardunaldiak: Oraina & Geroa
 Udaberriko ikastaroak
 Zientzia-gaiak euskaraz dibulгатzeko tailerra
 Udako Ikastaroak: ANITZA
 Euskarazko on-line eskaintza unibertsitatean:
 egoera eta erronkak jardunaldia
- 9** UEU MoodleMoot Euskadin
 UEUren ikasturte-hasiera
 5 berezko titulu sustatu ditu 2016/2017 ikasturtean
- 10** Udazkeneko ikastaroak
 Bakea gugandik eraikitzen jardunaldia
 Software eta Teknologia Librean III. Mintegia
 #kafetapintxo topaketa
 IkerGazte2017 prestatzen
 Prest_Gara
- 13 ARGITALPENGINTZA**
 9 liburu berri
 Uztaro aldizkaria
 Aldiri aldizkaria
 Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko
 deialdia eta diru-poltsak
 Buruxkak liburutegi digitala
 Durangoko Azoka #51DA
- 14 INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK**
 Unibertsitatea.net ataria
 #txiotesia3 lehiaketa
 Inguma datu-basea
 Tesiker
 Euskarabildua #5 - 2016 edizioa

Sarrera

Zer gara?

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

Udako Euskal unibertsitatea (UEU) irbazi-asmorik gabeko eta Onura Publikoko aitormena duen kultur elkarte da. 1973. urtean sortu zen Ipar Euskal Herrian eta orduz geroztik bere helburu nagusia Euskal Unibertsitatea sortzea da. Horrekin batera, honako lanildo nagusi hauek ditu:

- Euskararen eta unibertsitatearen arteko zubiak eraikitzea.
- Euskal komunitate zientifikointelektuala biltzea.
- Unibertsitategaiak ekoitzi eta gizartearen esku jartzea. 1.000 bazkide baino gehiagok osatzen dute UEUren oinarri soziala jakintza alor desberdinetako sailetan antolatuta.

Zer egiten dugu?

Euskal Unibertsitatea sortzeko ildoak

UEUren helburu nagusia dugu hau. Izan ere, euskal gizarte bere osotasunean garatzeko ezinbesteko ikusten dugu maila goreneko hezkuntza erakundea sortzea honako ezaugarri hauekin: euskal gizartearen beharretara egokitua, izaera soziala izango duena, Euskal Herria bere osotasunean hartuko duena eta euskara hizkuntza ardatz nagusia izango duena. Helburu hau lortze bidean etengabe lanean ari gara. Jada hainbat saio burutu ditugu eta etorkizunean jarraikortasuna izango duen ildo bat izango da zalantza barik.

Argitalpengintza: liburuak eta aldizkariak

Liburugintzaren alorrean UEUren helburua bikoitza da: azpiegitura bibliografikoa sortzea batetik, eta arlo teknikoetan euskarazko terminologia eta sintaxia finkatzea bestetik. Unibertsitate mailako ikasketa zein ikerketan bibliografia zabala edukitzea ezinbesteko baldintza da unibertsitate eredu osasuntsu bat lortzeko. 1978. urtean lehen liburua

argitaratu genuenetik, dagoeneko ehunka izenburu ditugu gure katalogoan, eta unibertsitate mailako euskarazko testugintzan dekanu bilakatu gara.

Jarduera akademikoa

Aurrekoa lortze bidean, goimailako formazioa eskaintzeko lan egiten dugu. Etengabe aldatzen den gizarte honetan beharrezkoa da ezagutza berriak barneratzea. Bide honi jarraituz, unibertsitate mailako formazioa, ikastaro espezializatuak, mintegiak, jardunaldiak, irakasle zein profesionalen zuzendutako prestakuntza, udako ikastaroak eta hauekin lotutako ikerketa lantzen ditugu UEUn. Alor honetan dagoeneko erreferente bilakatu gara.

Informazio eta Komunikazio Teknologia

Goimailako formazioaren beharrak asetzeko badira urteak teknologia berriak uztartzen ditugula. IKTak egungo baliabideak dira eta hezkuntza munduan erabiltzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horregatik, hainbat proiektu jarri ditugu gizartearen eskura Interneten: Inguma, euskal komunitate zientifikointelektualaren datu basea (www.inguma.eus); UZTARO, Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria (www.uztaro.eus); UEUren liburutegi digitala (www.buruxkak.eus); Uztaro.eus, UEUren Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria (www.uztaro.eus); Unibertsitatea.net, komunitate unibertsitario euskaldunaren ataria (www.unibertsitatea.net); Kondaira, Historiako aldizkari elektronikoa (www.kondaira.net); eirakaskuntza gunea (<http://eirakaskuntza.ueu.org>);...

Nolakoak gara?

Kalitatea

UEUn kalitatea dugu helburu aurrera eramaten ditugun jarduerak eta proiektu guztietan. Hizkuntzaren zaintza, eduki, metodologia, material, baliabide eta gainontzeko bitartekorik hoberenak erabiltzen ditugu azken emaitza onena izan dadin.

Gizartearekiko erantzunkizuna

Onura publikoko izaera izanda, UEUren eginbeharra da gizarteak goimailako prestakuntza dituen beharrak zeintzuk diren jakin eta horiei erantzuna ematen saiatzea. Ahal den neurrian, gainera, eskainitakoa mundu guztiaren eskura modu erraz eta erosoenean jartzen saiatzen gara.



Euskararekiko konpromisoa

Euskara da UEUren ardatz nagusietako bat, gure izatearen arrazoietako bat. Unibertsitate mailako garapena euskararen bitartez dugu helburu eta horretarako bideurratzailea izan gara (eta gara) terminologia zientifikoa definitzeko eta euskararentzat itxitako ateak irekitzeko orduan. Euskara da Udako Euskal Unibertsitatearen komunikazio zein lanerako hizkuntza, eta euskaraz sortzen, antolatzen eta gauzatzen ditugu gure jarduerak guztiak.

Punta-puntako gaiak

Unibertsitateak gizartearen motorra izan behar du berrikuntza eta aurrerapenen aldetik. UEUren egitekoa da gai berritzaileak lantzea, mamitzea eta ondoren, gizarteratzea. Horretarako, aditu onenen, erakunde zein elkarte puntakoenen aliantzak biltzen ditugu.

Izaera partehartzailea

UEUren izaera soziala da. UEUren oinarria bazkideok

osetzen dugu eta barneegitura guztiak irekiak ditugu lan egin nahi duenarentzat. Sare zabal horrek proiektua etengabe aberasten du.

Hurbiltasuna

UEU gizartetik zein beste erakundeetatik gertu dagoen elkarte da. Harreman zuzen, goxo eta hurbileko horri esker, proiektua urtez urte sendotuz doa, eta gizartearen eskaerak zuzenezuzenean jaso eta erantzuteko aukera ematen digu.

Autonomia

UEUn ez gaude erakunde, egitura edota talde konkretuen izaera eta unean uneko interes edo jokabideen menpe. Mendekotasun bakarra gure helburuekiko dugu, eta berauek lortzeko erabakiak UEUko bazkideek osatzen duten Batzat Nagusian hartzen dira.

Dinamikotasuna

Hezkuntzaren mundua egunez egun aldatzen ari da. Ikasketa unibertsitarioak ikasturtero moldatzen dira, lana bilatzeko zein hobetzeko gure burua etengabe prestatzea ezinbestekoa da, teknologia berriek beste hezkuntza ikuspegi baten aurrean jartzen gaituzte urte batetik bestera. Egoera honi aurre egiteko beharrezkoa da moldatzeko gaitasuna duen erakunde bat izatea; eta UEU hala da.

Konpromisoa

Inguruan lan egiten duten pertsonen atxikimenduak ahalbidetzen du egun UEUren proiektua sendoa izatea eta hezkuntza alorreko erreferente bilakatzea.

EU

UEUren helburu estrategikoa da Euskal Unibertsitate euskalduna, nazionala eta herrikoia sortzea. Lan horretan Euskal Unibertsitatearen Elkartearen laguntzaz on-line unibertsitatearen ildoak lantzen egon gara, bai Eusko Jaurlaritzarekin bai UPV/EHUrekin. 2016an hiru lan-ildo nagusitan lan egin dugu:

- Harreman instituzionalak.

- Atxikitako zentro baten sorrera master ofizialak eman ahal izateko.
- Graduak on-line eta euskaraz eskaintzeko beharrezko gizarteratzea.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik UPV/EHUrekiko lankidetzaren bidez, horri ekin genion, eta on-line masterretan hitzarmen bat garatzea adostu genuen. Adostutakoaren arabera, UEUK atxikitako zentro bat sortuko du master ofizial bat on-line eskaini ahal izateko: Bigarren Hezkuntzako Masterra hain zuzen ere. Proiektu horretan buru-belarri murgildu gara urtean zehar, proiektua lantzen, eredu pedagogikoa zehazten, irakaslegaiak identifikatzen eta UPV/EHUko tituluaren arduradunak eskatutakoa betetzen.

Dena den master hori (eta etorkizunean atxikitako zentroaren bidez bidera daitezkeenak) mugari izanda ere, horrek ez du asetzen on-line unibertsitatearen aldetik UEUK duen proiektua. Hori dela-eta, sozializazio-lanarekin jarraitu dugu, ekainean burututako jardunaldian (*Euskarazko on-line eskaintza unibertsitatean: egoera eta erronkak*) zentratuta. Jardunaldia oso arrakastatsua izan zen eta komunikabideetan oihartzun handia lortu zuen.

EAEko hauteskundeek, berriz, EJRrekiko harremanetan eten bat sortu zuten. Aipatzekoa da emaitzetan nagusi izan ziren hiru alderdien programetan on-line unibertsitatearen beharra jasota dagoela nola edo hala. Hori dela-eta, ildo honetan etorkizunari baikortasunez begira diezaiokegula uste dugu, baina gaiak momentuz bideratu gabe jarraitzen du.



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ



Sailburuen Biltzarra

Aurten ere egin dugu Sailburuen Biltzarra. Bertan, UEUKo sailen eta egituraren arteko koordinazioa landu, esku artean dauden proiektuak eztabaidatu eta sailen arteko harremanak sustatzen ditugu. Argazkian, ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Amaia Serrano (Literatura), Iratxe Retolaza (Literatura), Ekaitz Agirregoitia (Osasuna), Yolanda Mendiola (Zuzenbidea), Ruben Urizar (Hizkuntzalaritza), Irati Iciar (Etengabeko prestakuntza), Anartz Ormazza (Arkitektura), Iñaki Alegria (UEUKo zuzendaria), Olatz Pereda (Natura Zientziak), Edurne Larraza (Informatika) eta Nekane Intxaurtza (Argitalpengintza). Bilera aberatsa izan zen benetan.



Upategira bisita

Maiatzean UEUKo zuzendaritzako kideok, sailburuok eta bazkideok irteera egin genuen Arabako Errioxara. Baigorri eta El Fabulista upategiak bisitatzeko aukera izan genuen eta La Muralla jatetxean bazkaldu genuen. UEUekin daukagun lotura estutzeko aukera ezin hobea izan zen.

Aditu Duzu? irratsaioa

2016an ADITU DUZU? irratsaioa egiten jarraitu dugu INFO7 irratiari. Irratsaioaren helburua goi-mailako hezkuntza- eta ikerketa-alorreko informazioa zabaldu, ikertzaile gazteei tarte bat eskaini eta UEUren lana ezagutzera ematea da. Hileko lehen astelehenean emititzen da saioa eta aurten Maria Ruiz antropologoa, Josu Lopez Gazpio kimikaria, Unai Fernandez de Betoño arkitektoa eta Alaitz Etxabide ingeniari kimikoa elkarrizketatu ditugu, besteak beste.

Ekosfera saioan kolaboratzen

Aurten Euskadi Irratiko EKOSFERA saioan kolaborazioak egiten hasi gara. Bertan parte hartu dute Anartz Ormazak, UEUKo Arkitektura sailburuak; Xabier Landabideak, UEUKo Komunikazio sailburuak eta Amaia Serranok, UEUKo Literatura Sailburuak.

Bernat Etxepare lizeoa eta UEU elkarlanean

Baionako Bernat Etxepare Lizeoak "Hazten gaitu,

hazten dugu" kanpaina abian jarri du ikasle gehiago jasoko duen kolegio berri bat eraikitzeko. Kanpainaren helburua ekipamendu eta materialak lortzea da, sagarrondoak salduz. 300.000 euro beharko direla aurreikusten dute. Bernat Etxepare lizeoa da Ipar Euskal Herrian irakaskuntza euskaraz eskaintzen duen lizeo bakarra, eta, UEU ere euskarazko unibertsitate-proiektu euskalduna izanik, kanpaina horretan bidelagun izatea erabaki zuen kanpainaren zabalkundean lagunduz eta diru-ekarpena egingo dio lizeoari. Era berean, UEUren eta lizeoaren arteko elkarlana estutzeko asmoa dugu, UEUren proiektua bertako gazteei ezagutaraziz.

Donostiako protokoloa

Kontseiluak hizkuntza-berdintasunaren alde eta hizkuntza gutxituen garapena bermatzeko dokumentua aurkeztu zuen abenduaren 17an *Donostia2016*aren baitan. Herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatuak egon daitezzen hartu beharreko gutxieneko neurriak jasotzen dira bertan. UEU Kontseiluko kide denez, ekitaldian parte hartu zuen.

POLITIKALDIA Nazio Estrategian

Orreaga taldeak, UEUren laguntzarekin, *Politikaldia Nazio Estrategian* politika-jardunaldia antolatu zuen. Bertan politikaren oinarriko kontzeptuak, burujabetasuna eta estatuaren berrezarpena landu ziren.

Jarduera akademikoa

Lurraldea eta hizkuntza

III. jardunaldiak: Oraina & Geroa

120 pertsonak parte hartu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMak, Kontseiluak eta UEUK maiatzean antolatu dugun *Lurraldea eta Hizkuntza: Oraina & Geroa* jardunaldiaren hirugarren bilkuran. Bertan, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa aurrera eraman duten proiektuak ezagutu ditugu, bai eta tresnaren legezko aplikazioa zein izan daitekeen eta zer neurri zuzentzaile aplikatu daitezkeen ere hausnartu dugu.

Udaberriko ikastaroak

UEUK otsaila eta maiatza bitartean 16 ikastaro eskaini ditu udaberriko eskaintzaren barruan on-line, Eibar, Gasteiz eta Iruñean. Denetarikoa gaiak landu dira: komunikazioa Moodle-n, Euskal mitologia, umorea hezkuntzan, dolu-prozesuak ikastetxeetan eta abar. Guztira 174 pertsonak eman dute izena formazio horietan.

Zientzia-gaiak euskaraz dibulгатzeko tailerra

UEUK eta UPV/EHUren Arabako Campuseko Euskara Zuzendaritzak elkarlanean antolatu dugu tailer hau maiatzean, zientzia-dibulгатzaile lanetan hasi nahi dutenei baliabideak eskaintzeko asmoz. Egitasmoa EHUSKARABANda programaren barne eskaini da. Hizlariak Josu Lopez-Gazpio eta Koldo Garcia Etxebarria, UPV/EHUko ikertzaileak, dibulгатzaileak eta UEUKideak izan dira.

Euskarazko on-line eskaintza unibertsitatean: egoera eta erronkak jardunaldia

Ekainaren hasieran UEUK *Euskarazko on-line eskaintza unibertsitatean: egoera eta erronkak* jardunaldia antolatu du Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean. UEUren ildo estrategikoarekin bat egiten duten jardunaldi hauetan, galdera hauei erantzuna ematen saiatu gara:

- Zein da unibertsitate-mailako euskarazko on-line eskaintza?

- Zein da instituzioek arlo honetan planteatzen duten apustua?
- Zein dira euskarak eta unibertsitateek arlo honetan dituzten erronkak?

Jardunaldian Carles Sigalés-ek, UOCeko Irakaskuntzarako errektoreordeak, parte hartu du, bai eta Euskal Herriko unibertsitate desberdinetako eta Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Euskaltzaindiko ordezkariak ere.



Udako ikastaroak: ANITZA

2016an UEUK 23 ikastaro eta 7 jardunaldi antolatu ditu. Azken horien artean, UEUKide izandako Eugenio Arrazari eginiko omenaldia, Itzultzaileen bilkura, matematikariena eta Arkitekturakoena aurkitzen dira, besteak beste. Jasotako ikastaro-proposamenak 93 izan dira.

Iñaki Alegria UEUKo zuzendariak hitz hauek esan ditu udakoen aurkezpenean: *“Lau hamarkada daramatza UEUK euskara eta unibertsitatearen alde lanean. Denbora tarte horretan UEUK egindako ekarpena handia izan da: euskara unibertsitate-esparruan landu zitekeen apustua egia bihurtzea, euskarazko hiztegi teknikoaren definizioa, euskal komunitate zientifikoarentzat bilgune izatea, proiektu berritzaileak martxan jartzeko gaitasuna unibertsitate-mailako testugintzan eta formazioan egiten duen lan erreferentziatzkoa eta, noski, Euskal Unibertsitatearen aldarria. Orain aipatutako*

zereginaz gain, ordea, UEUK betetzen duen funtzio garrantzitsuenetako bat azpimarratu nahiko nuke: unibertsitate-sistemaren barruan sare euskalduna biltzea. Hau da, jakintza eta aditu euskaldunen topagune eta akuilu izatea. Udako ikastaroak desberdinak dira formatuan, gaietan, elkarlanean... alde desberdinetatik aberatsak dira eta horregatik aukeratu dugu aurtengo lelorako ANITZA leloa. Udako Ikastaroen plaza ere ikasi, eztabaidatu, lan egin eta ideiak trukatzeko foro ezin hobea da, eta bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztet”.

Azken urteetako arrakastari eutsi eta azken urte hauetako partaidetza handiena izan dugu bertan: 550 parte-hartzaile.

UEU MoodleMoot Euskadin

Ikastolen Elkarteak antolatu duen MoodleMoot Euskadin egon da UEU eta hurrengo urtean berak antolatzeko ardura hartu du. Aurtengo edizioan, UEUren irakaskuntza telematikoaren eredia finkatzeko ebaluazio matrizak ponentzia aurkeztu dute Raket Gamito eta Maitane Muñozek, UEUKo on-line irakaskuntzaren arduradunek.



UEUren ikasturte-hasiera

Irailaren 29an UEUK 2016/2017 ikasturteko irekiera-ekitaldia egin du Eibarren, Ikastetxe Nagusian. Bertan, Iñaki Alegriak, UEUKo zuzendariak, ikasturte



honetako helburuak hiru direla adierazi du:

- Graduondokoetan eta masterretan eskaintza berriak lantzea, on-line aukera areagotuz.
- Iruñean 2017ko maiatzean egingo den bigarren IkerGazte kongresuak lehenengo edizioaren maila berdintzea.
- On-line unibertsitatea martxan jartzea.

Hitzaldi nagusia Lorea Agirrek, kazetari, irakasle, ikertzaile eta JAKIN aldizkari zuzendariak, eskaini du: *“Egin izateko. Euskararen borroka feminista”.*

5 berezko titulu sustatu ditu 2016/2017 ikasturtean

UEUK euskarazko 5 berezko titulu sustatu ditu 2016/2017 ikasturtean UPV/EHUren eskaintzaren barne. UEUren ildo estrategiko nagusietako bat da goi-mailako formakuntzaren euskarazko eskaintza sustatzea, euskal gizartearen formazio- eta hizkuntza-beharrei erantzuteko eta Euskal Unibertsitatearen ildo indartzeko asmoz.

- *IKTak eta konpetentzia digitalak* hezkuntzan, etengabeko formakuntzan, eta hizkuntzen irakaskuntzan (1. edizioa)
- *Lurraldea eta Hizkuntza. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa* (1. edizioa)
- *Itzulpen-gintza eta teknologia* (5. edizioa)
- *Hondakinen kudeaketa eta tratamendua* (4. edizioa)

- *Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen (2. edizioa)*

Udazkeneko ikastaroak

UEUk iraila eta azaroa bitartean 15 ikastaro eskaini ditu udazkeneko eskaintzaren barruan on-line, Eibar, Gasteiz eta Iruñean. Denetariko gaiak landu dira: ordenagailuen programazioa, gorputza eta arreta, Python programazio-lengoaia, GIS librea eta abar. Guztira 191 pertsonak eman dute izena formazio horietan.



Bakea gugandik eraikitzen jardunaldia

65 pertsonak parte hartu dute urrian Azpeitian egin genuen *Bakea gugandik eraikitzen*. Egia, justizia, erreparazioa eta berriro ez errepikatzeko bermea jardunaldian. Bertan, hiru lan-eremutik aztertu da bakearen eraikuntza: iragana eta haren kontakizuna, nazioarteko prozesuak eta norbanakoen esperientziak, emakumeen ikuspegitik. Jardunaldiek bi egun iraun dute eta, besteak beste, Itziar Salegik, Lurdes Herrastik, Josu Chuecak eta Aintzane Ezenarrok parte hartu dute.

Software eta Teknologia Librearen III. Mintegia

UEUk eta Talaios Kooperatibak elkarlanean *Software eta Teknologia Librearen III. Euskal Mintegia* antolatu dugu azaroan Donostian. Mintegiaren helburua software eta teknologia librearen inguruan lanean dabiltzan euskal garatzaileak *elkar ezagutu eta sarea indartzea izan da*. Hitzaldi laburrak entzun eta tailerretan ikasteko aukera izan dugu bertan, eta Iñaki Alegria eta Nestor Garay-ri omenaldia egin diete aurreko bi mintegien antolatzaileak izateagatik.

#kafetapintxo topaketa

Ikerketaren eta euskararen arteko lotura sendotzeko asmoz, azaroan #kafetapintxo topaketa antolatu dugu UPV/EHUko Arabako Campuseko Euskara Zuzendaritzarekin batera. Bilkuraren helburua ikertzaileen sarea sortu eta elkarren arteko harremani erreparatzea izan da, *world cafe* dinamika erabiliz.

IkerGazte2017 prestatzen

Aurten dagoeneko IkerGazte2017 prestatzen hasi gara. Bigarren edizioa Iruñean izango da eta NUPekin elkarlanean antolatzen ari gara. Azaroan Iruñean bilera egin genuen proiektua koordinatzeko, eta abenduan komunikazioen deialdia zabaltzeko prentsurrekoa eskaini genuen.

Prest_Gara

Eusko Jaurlaritzaren Prest_Gara programak irakasleen etengabeko prestakuntza lantzen du. UEUk aurten 12 ikastaro eman ditu bertan. Horretarako urtero deialdia zabaltzen dugu gure sarea baliatuz eta urtetik urtera jasotzen ditugun proposamenak gero eta gehiago dira.



UEU
 udako
 euskal unibertsitatea



Argitalpengintza

9 liburu berri

UEUK unibertsitate-mailako testugintzan erreferente izaten jarraitzen du. Aurten 9 liburu argitaratu ditugu:

- Festak, genero-harremanak eta feminismoa
- *Analisi Matematikoa. Ariketa ebatziak*
- *Anafora eta erreferentziakidetasuna: izen-kohesiorako baliabideak*
- *Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturallean*
- *Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*
- *PYTHON programazio-lengoaia: oinarriak eta aplikazioak*
- *ZERO ZABOR. Nola berpiztu ekonomia Lur planeta txikitu gabe*
- *Programen espezifikazio, egiaztapen eta eratorpen formala*
- *Euskaldunak eta karolingiar iraultza; Akitania eta Baskonian barrena*

Uztaro aldizkaria

UZTARO, Giza eta gizarte-zientzien aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu (96-99). Zenbaki bakoitzetik artikulua bat uztaro.eus webgunetik eskuratu daiteke, doan. Horretaz gain, uztaro.eus webgunea gailu mugikorretarako doitu dugu.

Aldiri aldizkaria

ALDIRI. Arkitektura eta abar aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu:

- Aldiri 25. *Donostia, kulturaren hiria?*
- Aldiri 26. *Gizarte zaharra, arkitektura berria*
- Aldiri 27. *Hezkuntzaren arkitektura*
- Aldiri 28. *Arkitekturaren hezkuntza*

Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko deialdia eta diru-poltsak

UEUK liburugintzako deialdia egin du ekainean. Deialdi honen xedea, euskarazko unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzea izan da, eta edukien kalitatea bermatuko duen bide eraginkorra proposatzea. Deialdi honetara euskarazko

unibertsitate-liburu amaituak aurkeztu ahal izan dira, euskaraz sorturikoak nahiz euskaratuak (euskaraz sorturikoek izan dute lehentasuna). 5 proposamen jaso ditugu.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, UEUK unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko hiru diru-poltsaren deialdia egin du urrian. Poltsa bakoitzaren iraupena gehienez urtebetekoa da eta diru-zenbatekoa 1.000 eurokoa. Jakintza-alor guztietara irekita dagoen deialdia izan da. 7 proposamen jaso ditugu eta irabazleak hauek izan dira:

1. *Euskararen Biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (Jone Goirigolzarri; Xabier Landabidea, Ibon Manterola)
2. *Zientzia ala ideologia: esku ikusezinaren itzal luzea* (Joseba Permach Martin)
3. *Euskal Herria markaz eta markagintza: nazio garapena, berrikuntza eta parte hartzea oinarri* (Naroa Jauregizuria Lopategi + 4 gutxienez)

Buruxkak liburutegi digitala

Buruxkak liburutegi digitalaren helburua hau da: UEUK argitaratu dituen liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoan unibertsitario euskaldunei eskaintzea, ikasteko, irakasteko, irakurtzeko eta ikertzeko erabil ditzaten. 2016an zehar, edukiak on-line jartzeaz gain, gure liburu- eta artikuluegileei elkarrizketak egin dizkiegu bi asterik behin: Maider Zilbeti, Dani Zuazagoitia eta Iñaki Lopez de Luzuriagari, besteak beste. Horretaz gain, buruxkak.eus webgunea gailu mugikorretarako doitu dugu.

Durangoko Azoka #51DA

51. edizioa izan da Durangokoa, eta urtero bezala, UEU bertan izan da. Azoka euskarazko produkzio idatzian nahiz diskogintzan erreferentziala da. UEU unibertsitate-mailako euskarazko produkzioan aitzindaria den heinean, ezinbestekotzat jotzen dugu urtero-urtero bertan egotea.

Informazio- eta komunikazio-teknologiak

Unibertsitatea.net ataria

Euskal ikertzaileek egiten duten lana gizarteratzeko konpromisoarekin jarraitzen du Unibertsitatea.net atariak, eta hamabostero, atariko Zitzu Bizian albistegian, euskal ikertzaile gazteak elkarrizketatzen jarraitzen dugu. Hainbat dira elkarrizketatu ditugun ikertzaileak: Uxoa Iñurrieta, Iraia Muñoa, Onintza Belategi, Gaizka Insunza, Haizea Estomba, Amaia Inza, Gorka Salces, Ekain Rojo, Alaitz Etxabide, Haritz Arrieta, Irati Otamendi, Ander Intxaurre, Aratz Ramirez de la Piscina, Estibaliz Mateos eta Aitzol Astigarraga, besteak beste.



#txiotesia3 lehiaketa

Unibertsitatea.net atariak hirugarren aldiz antolatu du #txiotesia lehiaketa. Ekimen honen helburua ikertzaile euskaldunak eta haien lana ezagutzera ematea da. Lehen saria Uxoa Iñurrietak irabazi du *Izen+aditz konbinazioen itzulpena: azterketa linguistikoa eta tratamendu konputazionala* ikerketa 6 txiotan modu ulergarrienean laburtzeagatik, eta bigarren saria Iraia Muñoak eraman du, belaunaldiz belaunaldiko oinordetza epigenetikoaren inguruan egiten ari den tesiaren azalpen originalena egiteagatik. Edizio honetan 52 ikertzailek parte hartu dute, eta sari-banaketa Garoa liburu-dendan egin dugu, aurreko edizioetako #txiotesia-ko irabazleekin: Estitxu Garai, Itxaro Perez eta Itziar Gonzalez-Dios.

Inguma datu-basea


Ingumak 16. urteko ibilbidea egin du, egitasmoa hazarazi eta aberasten jarraituz. 2016an, besteak beste, 452 egile berriren produkzioa barneratu eta 1.100 erreferentzia katalogatu ditugu, horietatik % 71 idatzizko lanen datuak izan ziren. *Inguman* 39.100 produkturen datuak (liburuak, itzulpenak, artikulak, liburu-atalak, hitzaldiak, ikastaroak...) ditugu eskura eta 15.580tik gora erreferentziaren edukia zuzenean kontsultatu daiteke.

Tesiker

2016an katalogatutako 606 tesi jaso ditu Tesikerrek. Horietatik 419k esteka zuzena dute, hau da, euskaraz egin diren tesien % 69k. Aurten aldaketa bat egin da proiektuan; izan ere, 2015. urtetik aurrerako tesiak ez dira Tesiker bidez argitaratuko, unibertsitateek beren gordailuen bidez baizik. Hori dela-eta, kanpoko erakundeetatik atzitutako tesiei deskribapen-fitxa egiten hasi gara aurten (izenburua, egilea, data, euskarazko eta ingelesezko laburpena, deskriptoreak, nazioartekoak diren edo ez, eta elebidunak diren edo ez).

Euskarabildua #5 - 2016 edizioa

Azaroan antolatu dute jardunaldi hau Ametzagaiñak, Argiak eta iametzak, eta UEU laguntzaile izan da. *Komunikazio emozionala: tresna eta jokabide komunikatiboak gizarte mugiarazten* izenburupean egin da aurtengo jardunaldia. Informazioz inguratuta bizi garen aro honetan, gero eta garrantzi handiagoa dauka mezuaren aukeraketak, emateko moduak, kanalak... Baina informazio-anabasa horretan boterearen hegemonia aldatu da, jada ez dira hedabide handiak eskusiboki agenda markatzen dutenak edo filtro-lana egiten dutenak. Gizarte-mugimendu alternatiboen mezuak inoiz baino ozenago eta indartsuago hedatzen dira, emozioetara iritsiz, masa-mugimendu handiak eraginez... eta begirada horretan jarri da.



Bilbon

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T (00 34) 94 679 05 46
F (00 34) 94 479 30 39
ldazkaritza@ueu.eus

Baionan

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
iparraldea@ueu.eus

Eibarren

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T (00 34) 943 82 14 26
F (00 34) 943 82 06 16
markeskoa@ueu.eus

Iruñean

Joaquin Beunza 13, behea
31014 Iruñea
T (00 34) 948 36 25 63
F (00 94) 948 38 46 59
nafarroa@ueu.eus